

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“A-3920 errepidea (Untzillako bidegurutzeta) egokitu eta trazadura hobetzeko proiektua. Aramaioko (Araba) A-3920 eta A-4021 errepidearen eraikitze proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abidura handiko linearen eraginak direla eta.” -k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, 150/2022 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Proiektu hau jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioen erantzuna: “A-3920 errepidea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzeta). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko linearen eraginak direla-eta” Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 16ko 691/2021 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “A-3920 errepidea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzeta). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko linearen eraginak direla-eta” proiektua, bai eta proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda zehatza eta banakatua, eta jendaurrean jartzeko nahitazeko izapidea egitea ere.

Jendaurrean egon den aldian, alegazio idazki bat aurkeztu da desjabetze espedienteko 3 eta 4 finen inguruan, eta Lege eta Administrazio Zerbitzuak txostena egin ondoren, Bide Azpiegituren Zuzendaritzak onetsi eta Foru Gobernu Kontseilu honek bere egin du. Horixe da erabaki honen oinarria eta arrazoiak, eta alegazio egileari igorriko zaio, aurkeztutako alegazioa baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Administrazio desjabetzaile honek eskatuta, Gasteizko 1 zenbakiko jabetza erregistroak egindako jabari eta kargen ziurtagiriak jaso ondoren, onespina eman behar zaio proiektu honen eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari, zeina honako hauek kontuan hartuta egin baita: jabari eta kargen ziurtagiriak; 3/000 eta 4/000 finkei buruz Lege eta Administrazio Zerbitzuak emandako txostena; 5 eta 6 finen titulartasuna, 2021eko azaroaren 26ko 1.556 zenbakidun salerosketa eskritura publikoaren bidez egiaztatua; eta eraginpeko finen aprobeixamendu eguneratuak.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adierazi behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitazeko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela, eta, ondorioz, okupazioa presakotzat jo behar dela. Ildo horretatik, Errepide Zerbitzuak jakinarazi duenez, gaur egun A-3920 errepidea, Untzillako herri barruko bidearekiko bidegurutzetan, oso errepide estua da; 5 metro zabaleko galtzada bat du, bazterbiderik gabea, eta oinplano bihurtzeko trazadura du, oso erradio txikiko bihurtzeko bat du eta nahikoak ez diren

akordamendu bertikalen parametroen bidez eginda dago altxaera trazadura, eta horren ondorioz errepiderako sarbidea ikuspen urrikoa da eta, hortaz, tarte arriskutsua da bide segurtasunaren ikuspuntutik.

Untzillako herri barruko bidearen eta A-3920 errepidearen arteko lotura, gaur egun, bi "hanka" independenteren bidez egiten da, inolako antolamendurik gabe, eta ikuspen gutxirekin, errepidearen trazadura kaskarra delako.

Erantsi duenez, tarte horretan A-3920 errepidearen oinplanoko eta altxaerako trazadura hobetzeko, eta Untzillara sartzeko bidegurutzea hobetu eta berrantolatzeko, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak, ADIFekin hartutako erabakien barruan, onespren eman dio proiektu honi: "A-3920 errepidea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzea). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko linearen eraginak direla-eta"

Proiektu honetan hartutako konponbidea A-3920 errepidearen oinplanoko eta altxaerako trazadura hobetzea da; horretarako, 15 metroko erradiodun bihurtzea oinplanoan hobetuko da, 40 metroko erradiora handituta, eta altxaerako trazadura hobetuko da, proiektu abiadura 40 km/h-koa izateko parametroekin. Egungo errepideko galtzada zabaltzeko, plataforman 3,00 metroko zabalera bi errei, 0,50 metroko bazterbide bana eta 0,50 metroko bermak egingo dira.

Era berean, Untzillako herri barruko bidearen eta A-3920 errepidearen arteko bidegurutzea berrantolatuko da, eta, horretarako, "hanketako" bat kenduko da; hartara, trazadura hobetuko da eta abiadura aldatzeko falkak sortuko dira irtete eta sartzeko mugimenduetarako.

Amaitzeko, azaldu du obra horiek eginda A-3920 errepidean ibilgailuen zirkulazio baldintzak hobetzea lortuko dela, errepidearen ikuspen eta irisgarritasun baldintzak hobetuko direlako eta tarte horrek gaur egun duen konfigurazioan dituen bide segurtasuneko arazoak konponduko direlako.

Premiazkotzat jotzeko izapiderako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikuluan xedatutakoari jarraituz, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz ere.

Arabako Foru Aldundiak du eskumena Arabako errepideak planifikatu, proiektatu, eraiki eta aldatzeko, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (autonomia erkidegoko erakundearen eta lurralde historikoko foru organoen arteko harremanari buruzkoa) 7. eta 8. artikuluetan eta ekainaren 25eko 20/1990 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko errepideari buruzkoa) 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak, 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, Foru Gobernu Kontseilu hau da organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta haiek okupatu beharra onesteko, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera ere.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Erantzutea "A-3920 errepidea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzeara). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko linearen eraginak direla-eta" proiektua jendaurrean jartzeko izapidean aurkeztutako alegazioei, eta haiek baietsi edo ezestea Lege eta Administrazio Zerbitzuak egindako txostenaren arabera.

Bigarrena. Onestea "A-3920 errepidea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzeara). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko linearen eraginak direla-eta" izeneko proiektuaren eraginpeko ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina honekin batera doan eranskinean jaso baita.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeari begira.

Laugarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Bosgarrena. 31.020,35 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000502 "Desjabetzeak" partidaren kontura (zorpekin erreferentzia: 105-928/000.22.1.22), eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagozkien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta zorpekin erreferentziaren kontura. Zenbateko hori ordainduko da Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero, eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzen, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua Gauzatzeko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauaren 15. Artikuluak.

Erabaki honek administrazio bideari amaiera ematen dio, eta beraren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera"

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzen, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsioa, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Aramaioko Udaletxetako lokaletan ager daitezten, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatik kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 17a

Jarduneko Bide Azpiegituren zuzendaria

E. D. PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Viarías y Movilidad

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

A-3920 ERREPIDEA (UNTZILLAKO BIDEGURUTZEA) EGOKITU ETA TRAZADURA HOBETZEKO PROIEKTUA. ARAMAIOKO (ARABA) A-3920 ETA A-4021 ERREPIDEAREN ERAKITZE PROIEKTUAREN 1. JARDUKETA, GASTEIZ-BILBO-DONOSTIA ABIADURA HANDIKO LINEAREN ERAGINAK DIRELA ETA.

ACONDICIONAMIENTO Y MEJORA DE TRAZADO EN LA CARRETERA A-3920 (INTERSECCIÓN DE UNTZILLA), ACTUACIÓN 1 DEL PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ACTUACIONES EN LAS CARRETERAS A-3920 Y A-4021 EN EL TÉRMINO MUNICIPAL DE ARAMAIO (ÁLAVA) POR LA AFECCIÓN DE LA LÍNEA DE ALTA VELOCIDAD VITORIA-BILBAO-SAN SEBASTIÁN

Esp./Expte. 2021/3

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KATASTROKO DATUAK		UDALERRIA	APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO ONDASUNA	ERAGINDAKO AZALERA m ²		ORDUA	
		POLIGONOA	LURZATIA				BEHIN-BETIKOA	EGUNA		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	DATOS CATASTRALES		TERMINO MUNICIPAL	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	SUPERFICIE AFECTADA m ²	DEFINITIVA	DÍA	HORA
3	ZUBIA MURUA, MIKEL ARANA GARTZIAETXABE, MARIA ITZIAR ETXEBERRIA ERRASTI, JON ETXEBERRIA ERRASTI, LEIRE	6	298	ARAMAIO	ZELAIA / PRADERA EZ-EMANKOR / IMPRODUCTIVO	Estalpe, alambre-hesia, atea / Cobertizo, alambrada, puerta	427 126		11/4/22	10:00
4	ZUBIA MURUA, MIKEL ARANA GARTZIAETXABE, MARIA ITZIAR ETXEBERRIA ERRASTI, JON ETXEBERRIA ERRASTI, LEIRE	6	717	ARAMAIO	ETZE / ERIAL		467,10		11/4/22	10:00
5	ZUBIA MURUA, MIKEL ARANA GARTZIAETXABE, MARIA ITZIAR ETXEBERRIA ERRASTI, JON ETXEBERRIA ERRASTI, LEIRE	6	297	ARAMAIO	ZELAIA / PRADERA EZ-EMANKOR / IMPRODUCTIVO	Alambre-hesia / Alambrada	1452 342		11/4/22	10:45
6	ZUBIA MURUA, MIKEL ARANA GARTZIAETXABE, MARIA ITZIAR ARANA GARTZIAETXABE, MARIA ITZIAR	6	718	ARAMAIO	LARREA / PASTIZAL		425,39		11/4/22	10:45
2	BETIA BEITIA, JUAN IGNACIO	6	300	ARAMAIO	ZELAIA / PRADERA EZ-EMANKOR / IMPRODUCTIVO	Alambre-hesia, atea / Alambrada, puerta	898 259		11/4/22	12:00
1	LIZARRALDE ERRASTI, JESUS MARIA	6	190	ARAMAIO	MENDIA / MONTE		137		11/4/22	12:45
7	SANZ PAREDES, IÑAKI FERNANDEZ PLACER, ESTHER	6	223	ARAMAIO	LARREA / PASTIZAL EZ-EMANKOR /IMPRODUCTIVO		57 68		11/4/22	13:30